

**Alkarbidek -Bizkaiko Euskara Zerbitzuen bilguneak- koordinatuta,
2-3 urteko seme-alabak dituzten 7.000 familiari zuzenduko zaie kanpaina**

**BIZKAIKO 36 UDALERRIK
EUSKARAZKO EREDUEN ALDEKO
INFORMAZIO KANPAINA ABIAN JARRI DUTE**

Bizkaiko 36 udalerrik parte hartuko dute 2013-2014 aurrematrikulazio kanpaina umeak lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoen artean banatzeko.

Kanpainaren ezaugarri nagusiak

Orain dela lau urtetik hona *D bitamina*, *Aberastu bere heziketa!* egitasmoa abian jarri izan da Bizkaiko hainbat udalerrian eta aurten ere Bizkaiko 21 udalerri eta 2 mankomunitatek elkarlanean burutu dute ekimena.

Urte hasieran zabalduko dute aipatutako informazio-kanpaina, 2-3 urteko umeen eskolatzeko aldia hasi baino zertxobait lehenago, gurasoek bidalitako informazioaren inguruan hausnarketa egiteko astia izan dezaten.

Alkarbidek, Bizkaiko euskara teknikarien bilguneak, koordinatu duen ekimen honetan guztira 7.000 liburuxka inguru banatuko dira kanpaina parte hartu duten udalerrietan.

Aurten gainera, kanpainari buruzko iritzia jasotze aldera, inkesta bat ere bidaliko zaie hartzaileei. Inkesta horren bidez kanpainari buruzko iritzia emateaz gain, gurasoek euren keza eta zalantzak ere helarazi ahal izango dizkiete euskara zerbitzuetako arduradunei. Inkesta betetzen duten guztien artean euskarazko produktuen sorta zozketatuko da.

Helburua

Umeak eskolan lehen aldiz matrikulatzen dituzten gurasoei D ereduari buruzko informazioa ematea eta eredu hori aukeratzeko arrazoiak azpimarratzea.

Parte hartzaileak

Bizkaiko 21 udal eta 2 mankomunitate. Guztira, honako 36 udal hauek:

Abanto-Zierbena, Arrieta, Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Berango, Bilbao, **Enkarterriko Mankomunitatea**, Erandio, Etxebarri, Fruiz, Gamiz-Fika, Gatika, Gordexola, Leioa, Mungia, Muskiz, Ortuella, Sestao, **Txorierriko Mankomunitatea**, Urduña, Zaldibar eta Zierbena.

Kanpainaren edukia

Kanpainaren osagarri nagusiak lau dira:

– Udaleko ordezkariaren batek (alkateak edo euskara zinegotziak) sinatutako gutuna, euskarazko ereduaren ikasteak dakartzan abantailen berri ematen duena.



- Gutuna bidaltzeko gutunazala. Gutunazalaren beraren barruko aldean agertzen dira D eredua aukeratzeko arrazoiak.
- Eskolan hasiko diren neska-mutikoentzako oparia (kanpainaren leloa idatzita duen neurgailua).
- Inkesta. Gurasoek kanpainari buruz duten iritzia eta gaiaren inguruan dituzten kezak eta zalantzak jaso ahal izateko. Inkesta betetzen duten guztien artean euskarazko produktuen sorta zozketatuko da.

Hartzaileak

Gutxi gorabehera, kanpainaren sustatzaile diren udalerrietan bizi eta 2-3 urteko umeak dituzten 7.000 familia izango dira.

